

ELGOIBARKO UDALA ETA ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEAREN
ARTEKO

HITZARMENA

HAINBAT EKINTZA LANKIDETZAZ ANTOLATU ETA FINANTZIATZEKO.

Elgoibarren, mila bederatzirehun eta laurogeitamahiruko
otsailaren hamarrean

BILDURIK

Alde batetik, Alesander Arrieta Jauregi, NAN 15.374.578
adinez nagusia Elgoibarko Izarra Elkartearen izenean eta
errepresentazioz.

Eta bestetik, Jose Ignacio Elkoro-Iribe San Martin jauna,
Elgoibarko Udalaren Alkate-Lehendakari izanik, beronen izenean
eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua
dagoelarik.

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna
aitortzen diote elkarri eta

AZALTZEN DUTE:

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea duela hogeitamar urte
sortu zenetik hona, Euskara eta euskal kulturaren alde hainbat
kultur ekintza antolatu dituela eta gaur egun ere antolatzen
jarraitzen duela, ekintza guzti hauen onuraduna Elgoibarko
Herria delarik.

Azken hamar urteotan beherakada nabarmena izan arren,
berrindartze prozesu batean murgildurik dagoela gaur egun,
inplantazio eta onarpen sozial gutxienekoak lortu dituztelarik.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea, inolako lukuru asmorik
gabekoa izanik, egiten duen lan eskergari behar bezalako
tratamendua ematen jarraitzea eta bide batez honen geroa
ziurtatu eta sendotzea.

Guzti hori dela eta, Hitzarmen hau izenpetzen dute,
ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK.

Lehena: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea eta Elgoibarko Udalak elkarlanean eta Elgoibarko Izarraren ardurapean, 1993. urtean burutuko dituzten ihardueretako dirulaguntzak xedatzea da hitzarmen honen helburua.

Bigarrena: Hitzarmen honen bidez ondoren azaltzen diren ekintzak subentzionatuko ditu ELgoibarko Udalak, Elgoibarko Izarrak hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko dituelarik ekintzok. Ekintza zerrenda hau ez da itxia eta beste ekintza batzuk ere elkarlanean antolatu eta subentzionatzeko aukera izango da.

1.- Elkartearen sustapenerako:	60.000
2.- Teknikarien elkarlanerako: .(aurrerago aztertzekotan)	
3.- Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak:	480.000
4.- Olentzero:	200.000
5.- Bertso-Eskola:	300.000
6.- Bertso-Jaialdia:	30.000
7.- Nagusien Etxegiña Bertso-Paper Lehiaketa: ...	170.000
8.- Gabonetako erakusketa:	80.000
9.- Ez dok amaitu!:	250.000
10.- Ikastolen aldeko autobusetarako:	230.000

GUZTIRA: 1.800.000

Hirugarrena: Udalak babestutako ekintzak kartel iragarkietan eta , orohar, ekintza horien publizitatean Elgoibarko Izarrak babeslearen izena jarriko du.

Laugarrena: Dirulaguntza hau , urtean bitan aurreratuko dio Udalak Elgoibarko Izarrari. Urtarrilean, onartutakoaren % 60a eta gainontzekoa urteko memoria azaldu eta diru zuriketa egin ondoren.

Boskarrena: Urtearen lehen bi hilabeteetan egingo du Elgoibarko Izarrak aurreko urteko gastuen zuriketa bai eta ekintzen memoriaren aurkezpena ere. Dena den, edozein momentutan Udalak eskubidea izango du Elgoibarko Izarraren diru kontuen berri izateko.


Seigarrena: Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarateak beharrezkotzat daukate Euskara Batzordeko Teknikaria eta Elgoibarko Izarrako Suspertzailearen arteko elkarlana. Hauen lankidetzak SIADCOk 4. Fasea burutzen duenean hasiko da, eta landu beharrekoa: Elgoibarko Euskararen normalizaio bidean, bi erakundeen arteko funtzio banaketaren proiektua.

Zazpigarrena: Ondoren aipatzen diren gauza hauetarikoren bat egingo balitz, diru-laguntza kendu egingo litzateke:

- Eskaeraren datuetan gezurrak sartu dituela frogatzen bada.
- Txostenik ez badu aurkezten edo bertan esandakoak gezurrak direla frogatzen bada.
- Diru-laguntzak beste zerbaitetarako erabili badira, hau da, ez badira erabili esandakorako eta beste zerbaitetan gastatu badira.

Zortzigarrena: Hitzarmen honek 1993ko Abenduaren 31 arte iraungo du. Luza daiteke datozen ihardunaldietarako, alde biak konforme badaude.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.



Elgoibarko Udaleko
Alkate-Lehendakaria



Elgoibarko Izarrako
Lehendakaria

ELGOIBARKO UDALA eta ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen arteko

HITZARMENA

'elgoiBARREN' HERRI ALDIZKARIAREN PROIEKTUARI DIRULAGUNTZA EMATEKO.

Elgoibarren, mila bederatzirehun eta laurogeitamahiruko otsailaren hamarrean

BILDURIK

Alde batetik, Alesander Arrieta Jauregi, NAN 15.374.578 adinez nagusia ELGOIBARKO IZARRA Elkartearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Jose Ignacio Elkoro-Iribe San Martin, Elgoibarko Udalaren Alkate-Lehendakari izanik, beronen izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AZALTZEN DUTE:

Elgoibarko Udalerrian herri informazioari dagokionean dagoen hutsunea bete nahirik, herri astekari baten beharra ikusten dela. Astekari honek autonomia, irikia eta profesionala izan behar du, bertako komunikazio hizkuntza Euskara izango delarik.

Guzti hau kontutan izanik, Hitzarmen hau izenpetzen dute ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK.


Lehena: Astekariaren jabea eta arduraduna **ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte**a izango da. Elkarte honek bere gain hartzen ditu astekariaren inguruan sortu daitezkeen arazo eta erantzunkizun guztien ardura.

Bigarrena: Elgoibarko Udalak, proiektuaren balioa hobetsi ondoren, **5.000.000** pezetako dirulaguntza emango dio **ELGOIBARKO IZARRA**ri proiektua gauzatu dadin.

Hirugarrena: Dirulaguntza hau urtean bitan aurreratuko dio Udalak Elgoibarko Izarrari. Urtarrilean onartutakoaren % 60a eta gainontzekoa, urteko memoria azaldu eta diru zuriketa egin ondoren.

Hirugarrena: Hitzarmen honek 1993ko abenduaren hogeitamaika (31) arte iraungo du. Luza daiteke datozen ihardunaldietarako, alde biak konforme baleude.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.



Elgoibarko Udaleko
Alkate-Lehendakaria



ELGOIBARKO IZARRAko
Lehendakaria

Elgoibarko Udala eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen arteko

HITZARMENA

Begirale Ikastaroa antolatzeko dirulaguntza emateko

Elgoibarren, mila bederatzirehun eta laurogeita hamahiruko azaroaren hamaseian.

BILDURIK

Alde batetik, Alesander Arrieta Jauregi, NAN 15.374.578 adinez nagusia Elgoibarko Izarra Elkartearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Jose Ignacio Elgoro-Iribe San Martin Jauna, Elgoibarko Udalaren Alkate-Lehendakari izanik, beronen izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahalmena dagoelarik.

AZALTZEN DUTE

Elgoibarko haurren euskalduntze prozesua behar bezala garatzeko beharrezkoa dela Euskararen erabilerrako plangintza serio bat prestatzea.

Gurasoengandik eta ikastetxeetatik jasotzen duten Euskara ezagutzari, eskolorduz kanpoko Euskara erabilera gehitu behar du gure Elgoibarko haurren konpetentzia linguistikoa behar bezalako izateko.

Euskarazko aisialdi plangintza hau burutzeko begirale talde ganorazkoa (euskalduna eta profesionala) behar dugula Elgoibarren.

Guzti hori dela eta, hitzarmen hau izenpetu dute, ondorengo klausulen arabera

KLAUSULAK

LEHENA: Elgoibarko Udalak 750.000 pezetako dirulaguntza emango dio Elgoibarko Izarra Elkarteari Begirale Ikastaroa eratzeko.

BIGARRENA: Dirulaguntzak bi epetan emango dizkio Udalak Elkarteari:

- 500.000 pezeta Begirale Ikastaroa hasi aurretik.
- 250.000 pezeta 1994. urtean zehar.

HIRUGARRENA: Dirulaguntza honen ordainetan, Elgoibarko Izarra Elkarteak ikastaroan parte hartzen duten begiraleen zortzirehun (800) orduren lan ordaina eskainiko dio Udalari.

LAUGARRENA: Bai Udalak eta bai Elkarteak antolaturiko aisialdi ekintzak balekoak izango dira zortzirehun ordutako lan ordaina betetzeko.

BOSTGARRENA: Orain arte Udal Euskara Zerbitzuak antolatzen zituen aisialdi jarduera guztiak, ELGOIBARKO IZARRA Elkartearen arduran izango dira aurrerantzean.

SEIGARRENA: Udaleko gainontzeko sailek ere Begirale Talde hau dohain erabiltzeko aukera izango dute arestian aipaturiko zortzirehun orduak bete arte.

Eta honela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetzen dute bildutakoek.



Elgoibarko Udaleko
Alkate-Lehendakaria

Elgoibarko Izarrako
Lehendakaria